TOLOSAKO UDALA

Gipuzkoako Ur Kontsortzioa

## HITZARMENA, ASUNCION KLINIKAKO SANEAMENDUA KONPONTZEKO OBRA,

**Tolosan,**

## BILDURIK

Batetik, Olatz Peon Ormazabal andrea, zeinak ez duen inguruabar pertsonalik adierazi behar bere kargu publikoa dela eta.

Eta Iñigo Elosegi Vallejo jauna, adinez nagusia, NANa: 15.963.803D, sozietate publikoko zuzendari kudeatzailea.

Beste aldetik, Jesus Maria Gomez Montoya jauna, adinez nagusia, NANa: 15.878.824S, Asuncion klinikako administratzaile bakarra.

## CONVENIO PARA LA EJECUCIÓN DE LAS OBRAS PARA LA REPARACIÓN DEL SANIEAMIENTO DE LA CLINICA DE LA ASUNCIÓN EN TOLOSA

**En Tolosa,**

## REUNIDOS

De una parte Dña. Olatz Peon Ormazabal, exenta de reseñar sus circunstancias personales en razón al cargo público por el que actúa.

Y Don Iñigo Elosegi Vallejo, mayor de edad, con DNI nº 15.963.803D siendo director gerente de la sociedad pública.

De la otra parte, Don Jesús María Gómez Montoya, mayor de edad, con DNI nº 15.878.824S, siendo administrador único de la clínica de la Asunción.

TOLOSAKO UDALA

Gipuzkoako Ur Kontsortzioa

| DIHARDUTE | ACTUAN |
|---|---|
| Olatz Peon Ormazabal andreak Tolosako Udalaren izenean eta hura ordezkatuz, udal horretako alkate gisa, egintza honetarako baimendua, Udalbatzak 2021eko irailaren hogeita hamarrean egindako bilkuran hartutako erabakiaren arabera. Espedientean jasota dago erabaki horren ziurtagiria, Udaleko idazkariak emana. | Doña Olatz Peon Ormazabal, en nombre y representación del Ilustre Ayuntamiento de Tolosa, en su calidad de Alcaldesa del mismo, autorizado para este acto en virtud de acuerdo adoptado por el Pleno en sesión celebrada el día 30 de septiembre de 2021. Consta en el expediente certificación del citado acuerdo expedida por la Secretaria del Ayuntamiento |
| Iñigo Elosegi Vallejo jaunak GIPUZKOAKO URAK SA sozietate publikoaren ordezkari gisa, eta horretarako ahala du, Juan Antonio Lázaro Pérez, Donostiako notarioak 1994ko martxoaren 1ean emandako eskrituraren arabera (Protokolo zenbakia: 535). Ordezkaritza egiaztatuta dago horretarako izapidetutako administrazio-espedientean. | Don Iñigo Elosegi Vallejo, en representación de La Sociedad Pública GIPUZKOAKO URAk S.A , con poderes para la suscripción del presente documento, según resulta de la escritura otorgada el 1 de marzo de 1994 por el Notario de Donostia . D. Juan Aurelio Lázaro Pérez (protocolo N.º 535) . Su representación se halla acreditada en el expediente administrativo instruido al efecto. |
| Jesus Maria Gomez Montoya jaunak Asuncion klinikaren ordezkari gisa, INVIZA, S.A.ren administratzaile bakarra, Tolosako notarioa den Pedro Elosegui Bergaretxek 2019ko martxoaren 14an emandako eskrituraren arabera (Protokolo zenbakia: 324). Ordezkaritza egiaztatuta dago horretarako izapidetutako administrazio-espedientean. | Don Jesús María Gomez Montoya, en representación de la Clínica de la Asunción, como administrador único de INVIZA,S.A., según resulta de la escritura otorgada el 14 de marzo de 2019 por el Notario de Tolosa, Pedro Elósegui Bergaretxe, protocolo Nº 324 Su representación se halla acreditada en el |

expediente administrativo instruido al efecto

**AZALTZEN DUTE:**

**I. AURREKARIAK**

**LEHENA**.- Gipuzkoako Ur Kontsortzioa zuzenbide publikoko erakunde bat da, elkarte-oinarria duena, eta Gipuzkoako zenbait udalerrik, besteak beste, Tolosakoak, osatzen dute. Haren helburua da *«ur-horniduraren eta saneamenduaren azpiegitura ezartzea eta ustiatzea lehen mailako sareetan, eta dagozkion zerbitzuak ematea, hori guztia baldintza egokietan eta indarrean dagoen araudiaren arabera».*

Era berean, Kontsortzioaren Estatutuen 7.2 artikuluak honela dio: *«hala erabakiko duenean, Kontsortzioak ur-zikloaren helburuak zabal ditzake, interesa duten udalekin ados jarrita eta haiekin dagokion hitzarmena izenpetu ondoren».* Kontsortzioko Batzar Nagusiak 2000ko abenduaren 21ean egin zuen bileran hartu zuen erabaki hori.

Tolosako Udalbatzak, 2006ko azaroaren 28an egindako bilkuran, besteak beste, honako erabaki hauek hartu zituen:

*«**LEHENA**: 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera, partzuergo bitartez kudeatzea uraren ziklo*

**EXPONEN:**

**I. ANTECEDENTES**

**PRIMERO**.- El Consorcio de Aguas de Gipuzkoa es un organismo de derecho público de base asociativa constituido por una serie de municipios de Gipuzkoa – entre ellos el de Tolosa – cuyo fin consiste en *“el establecimiento y la explotación de la infraestructura del abastecimiento de agua y saneamiento en redes primarias y la prestación de los servicios correspondientes, todo ello en condiciones adecuadas y conforme a la normativa vigente”*.

Así mismo, el artículo 7.2 de los Estatutos del Consorcio señala que *“cuando así lo acuerde, el Consorcio podrá extender sus fines del ciclo del agua, de acuerdo con los Ayuntamientos que lo interesen y previo convenio con los mismos”.* La Asamblea General del Consorcio adoptó dicho acuerdo en sesión celebrada el día 21 de diciembre de 2000.

El Pleno del Ayuntamiento de Tolosa, en sesión celebrada el 28 de noviembre de 2006, adoptó, entre otros, los siguientes acuerdos:

*“**PRIMERO**: Gestionar de forma consorciada a partir del 1 de enero de 2007 el ciclo integral del agua junto con el Consorcio de Aguas de*

*integrala, Gipuzkoako Ur Kontsortzioarekin batera, zeinaren parte baita udal hau "Aguas de Gipuzkoa - Gipuzkoako Urak SA" enpresaren bitartez».*

*Zerbitzu horrek berekin dakar altako eta bajako sareak kudeatzea, bai hornidurakoak bai saneamendukoak, eta beharrezkoak diren inbertsioak eta hobekuntzak gauzatzea.*

***BIGARRENA:** Uraren ziklo integraleko zerbitzua arautzeko ordenantza onartzea, eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioari baimena ematea hura eguneratzeko edo aldatzeko, egoki deritzotenaren arabera.*

***HIRUGARRENA:** Onartzea Gipuzkoako Ur Kontsortzioak ezarritako tasak, 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatzeko, eta kontsortzioari baimena ematea tasa horiek eguneratzeko, egitura aldatu gabe, 2/2004 Foru Arauaren 7.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.*

***LAUGARRENA:** Onartzea uraren ziklo integrala kudeatzeko formalizatu beharreko lankidetza-hitzarmenaren testua, eta, horren arabera, Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren esku uztea uraren ziklo integralaren tasen eta prezioen kudeaketa, likidazioa eta bilketa».*

Ur Kontsortzioaren estatutu-xedapenekin eta aipatutako osoko bilkuraren erabakiarekin bat etorriz, Kontsortzioa ari da kudeatzen 2007ko urtarrilaren 1etik Tolosako udalerriko altako eta bajako sarearen ur-hornidurako eta saneamenduko zerbitzu publikoa.

**BIGARRENA.-** Aipatutako estatutuen 8. artikuluak arautzen ditu Ur Kontsortzioak bere helburuak betetzeko dituen ahalmenak, eta nabarmentzekoa da d) apartatua, honako

*Gipuzkoa en el que este Ayuntamiento es partícipe a través de «Aguas de Gipuzkoa - Gipuzkoako Urak S.A.».*

*Este servicio supone la gestión de las redes de alta y baja, tanto de las de abastecimiento como de las de saneamiento, y la ejecución de las inversiones y mejoras necesarias.*

***SEGUNDO:** Aprobar la ordenanza de regulación del servicio de ciclo integral del agua y autorizar al Consorcio de Aguas de Gipuzkoa su actualización o modificación, según estimen oportuno.*

***TERCERO:** Aprobar las tasas establecidas por el Consorcio de Aguas de Gipuzkoa para su aplicación a partir de 1 de enero de 2007, y autorizar al consorcio la actualización de dichas tasas, sin modificar su estructura, conforme a lo dispuesto por el artículo 7.2 de la Norma Foral 2/2004.*

***CUARTO:** Aprobar el texto del convenio de colaboración a formalizar para la gestión de ciclo integral del agua, y, en su virtud, delegar en el Consorcio de Aguas de Gipuzkoa la gestión, liquidación y recaudación de las tasas y precios del ciclo integral del agua*".

Conforme a las disposiciones estatutarias del Consorcio de Aguas, y al acuerdo plenario citado, el Consorcio viene gestionando el servicio público de abastecimiento de agua y saneamiento de la red en "*alta*" y "*baja*" en el municipio de Tolosa, desde el pasado 1 de enero de 2007.

**SEGUNDO.-** El artículo 8 de los mencionados estatutos, regula las facultades del Consorcio de aguas para el cumplimiento de sus fines, siendo destacable el apartado d) que determina lo siguiente:

hau zehazten baitu:

***«Azpiegiturak ezartzeko eta kontserbatzeko behar diren proiektuak formulatzea eta obrak gauzatzea,*** *kasuan kasuko planen arabera»*.

**9. artikuluan zehazten da Kontsortzioa kudeatzeko modua, sozietate anonimo baten bidez, hain zuzen. Sozietate horren Batzar Orokorra Kontsortzioko Batzarra osatzen duten kideek soilik osatzen dute. Sozietate anonimo horrek kapital guztia publikoa du eta GIPUZKOAKO URAK SA du izena.**

**HIRUGARRENA.-** 2006ko azaroaren 29an sinatu zen Tolosan Uraren Kudeaketa Integralerako lankidetza-hitzarmenaren bigarren klausulak ezartzen duenez, «Tolosako Udalak erabaki du, ordenamendu juridikoak ahalbidetzen duen neurrian, bere xede eta jomuga diren zerbitzuak eta helburuak emateari dagokionez, GIPUZKOAKO UR KONTSORZIOAaren esku uztea ahal, eskuduntza, eskumen, ahalmen, eskubide eta betebehar guztiak».

**LAUGARRENA.-** Asuncion klinikak, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin itunduta, Tolosaldeko eta udalerri mugakideetako biztanle guztientzako osasun-laguntzako zerbitzua ematen du, zehazki, 30 udalerrirentzat eta 70.000 biztanlerentzat. Beraz, kontuan hartuta establezimendu horretatik ematen den zerbitzu publikoa, haren garrantzia eta biztanle horiengan duen eragina, guztiz beharrezkoa da establezimenduak behar bezala funtzionatzen duela bermatzea.

Nolanahi ere, duela lau urte baino gehiagotik, Asuncion klinikako

"***Formular proyectos y ejecutar las obras necesarias para la implantación y conservación de las infraestructuras*** *de acuerdo con los planes correspondientes".*

**En el artículo 9 determina la forma de gestión del Consorcio, a través de una Sociedad Anónima cuya Junta General está compuesta exclusivamente por los miembros integrantes de la Asamblea del Consorcio. Esta sociedad anónima de capital íntegramente público es la denominada GIPUZKOAKO URAK S.A.**

**TERCERO.-** La cláusula segunda del Convenio de colaboración para la Gestión Integral del Agua en Tolosa, firmado el 29 de noviembre de 2006, establece que *"el Ayuntamiento de Tolosa acuerda delegar, en la medida en que lo permita el ordenamiento jurídico, en el CONSORCIO DE AGUAS DE GIPUZKOA, cuantas potestades, atribuciones, competencias, facultades, derechos y obligaciones posee, en relación con la prestación de los servicios y fines que constituyen su objeto y finalidad.*

**CUARTO.-** Que la Clínica de la Asunción presta, de forma concertada con el Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco, el servicio de asistencia sanitaria para toda la población de Tolosaldea, y poblaciones limítrofes, concretamente para 30 municipios y 70.000 habitantes. Por tanto, teniendo en cuenta el servicio público que se presta desde el citado establecimiento, su entidad y su repercusión para la población afectada, es de todo punto necesario garantizar el correcto funcionamiento del establecimiento.

Si bien desde hace más de cuatro años, el colector privado de saneamiento de la Clíni-

TOLOSAKO UDALA

Gipuzkoako Ur Kontsortzioa

saneamenduko kolektore pribatua matxuratuta dago, eta, ondorioz, haren ur beltzak N-1 errepideko arekan isurtzen dira eta erreka txiki batera joaten dira, eta, ondoren, Oria ibaian amaitzen dute.

**BOSGARRENA.-** Uraren Euskal Agentziak 2020ko uztailaren 29an idatzi bat bidali zion Tolosako Udalari, salatzeko N1 errepidean, 436,3 kilometro-puntuan, euri-uren estoldara ur beltzak isurtzen zituztela eta Asuncion klinikakoak zirela ur beltz horiek. Era berean, 2020ko irailaren 30era arteko epea eman zitzaion Udalari egoki zeritzona adierazteko eta arazoari irtenbidea emateko hartu beharreko neurrien berri emateko

**SEIGARRENA.-** Gipuzkoako Ur Kontsortzioak, 2020ko irailaren 30eko idatzian, ziurtatu zuen Asuncion klinikako hartunea instalazio pribatu bat dela, eta instalazio horren isurketa baimentzeko baldintza izan dela klinikak sistema bereizle bat ezartzea, hodi bakar gisa funtzionatu baitu.

**ZAZPIGARRENA**.- Tolosako Udalak, 2020ko irailaren 30eko idazki baten bidez, Asuncion klinikari eskatu zion saneamendu-kolektorea urgentziaz konpon zezala, eta HILABETEKO epea eman zion proiektua aurkezteko eta egin beharreko obraren baimena eskatzeko. Halaber, ohartarazi zuen, konponketa hori egin ezean, **Udalak modu subsidiarioan gauzatuko zuela Asuncion klinikaren kontura**.

Errekerimendu hori bera egin zuen Gipuzkoako Ur Kontsortzioak, eta irtenbide tekniko bat proposatu zuen: hinka izeneko

ca Asunción permanece averiado con lo que sus aguas fecales se vierten en la cuneta de la Carretera Nacional 1 y terminan evacuando en una pequeña regata para posteriormente finalizar en el río Oria.

**QUINTO.-** Que la Agencia Vasca del Agua, remitió escrito de fecha 29 de julio de 2020 al Ayuntamiento de Tolosa, denunciando la existencia de un vertido de fecales a la alcantarilla de pluviales de la carretera N1 en el pk.436,3 procedente de la clínica Asunción. También se otorgó, hasta el 30 de septiembre de 2020, el plazo para que el ayuntamiento manifestase lo que estimase pertinente e informase sobre las medidas a llevar a cabo para dar solución al problema.

**SEXTO.-** Que el Consorcio de Aguas de Gipuzkoa, en escrito de fecha 30 de septiembre de 2020, certificó que la acometida de la Clínica Asunción es una instalación de naturaleza privada, y que la autorización del vertido de dicha instalación ha estado condicionada a que la Clínica estableciese un sistema separativo, ya que la tubería siempre ha estado funcionando como unitaria.

**SÉPTIMO**.- El Ayuntamiento de Tolosa, por escrito de 30 de septiembre de 2020, requirió a la Clínica Asunción para que reparase de manera urgente su colector de saneamiento, dándole un plazo de UN MES para presentar el proyecto y solicitar el permiso de la obra a ejecutar, y apercibiendo que en el supuesto de no proceder a su reparación, **el Ayuntamiento lo ejecutaría de manera subsidiaria a cargo de la Clínica Asunción.**

Ese mismo requerimiento fue realizado por el Consorcio de Aguas de Gipuzkoa, planteándose una solución técnica consistente en

sistema bidez lotzea klinikako saneamendu-sarea eta N-1 errepidearen beste aldean dagoen udal-sarearen kontrol-kutxatila.

**ZORTZIGARRENA.-** Asuncion klinikaren ordezkaritzak, Tolosako Udalak eta Ur Kontsortzioak egindako errekerimendua ikusita, 2020ko urriaren 23an idatzi bat aurkeztu zuen, non adierazi zuen N-1 errepideari eragiten dion konponbidea bideraezina zela, Foru Aldundiak (bide-sarearen titularra) ez baitzuen baimentzen. Aldiz, klinikako saneamendu-sarea Izaskungo errepidean barrena (udal titulartasunekoa da) Santa Klarako konexioraino eramatearen alde agertu zen, eta adierazi zuen erakunde hori erabat prest zegoela konponbide hori finantzatzen laguntzeko.

**BEDERATZIGARRENA.-** Egindako azterketa teknikoen ondoren, Tolosako Udalak eta Gipuzkoako Urak SAk bideragarritzat jo dute Asuncion klinikako saneamendu-sarea Santa Klara kalearen eta Izaskungo aldaparen elkargunean kokatutako saneamendu-sare publikoko putzuarekin lotzeko konponbide teknikoa, aldapatik barrena igarota.

**HAMARGARRENA.-** Tolosako Udalak interesa agertu du aurreko atalean aipatutako konponbidean, kontuan hartuta proposatutako trazadurak konpon ditzakeela Izaskungo aldapako hainbat higiezinek saneamendu-sarera sartzeko dituzten arazoak ere, eta alderdi guztiek konexio horiek batera egin ahal izateko interesa agertu dute.

**HAMAIKAGARRENA.-** Gipuzkoako Ur Kontsortziora atxiki izanaren ondorioz,

efectuar una HINCA para unir la red de saneamiento de la Clínica con la arqueta de control de conexión a la red municipal, ubicado al otro lado de la N-1.

**OCTAVO.-** La representación de la Clínica Asunción, ante el requerimiento realizado por el Ayuntamiento de Tolosa y por el Consorcio de Aguas, presentó un escrito de fecha 23 de octubre de 2020 , donde manifiesta la inviabilidad de la solución consistente en la afección a la N-1, ya que Diputación Foral (*titular de la red viaria*) no lo autorizaba. En cambio, se pronuncia a favor de que la red de saneamiento de la clínica discurra por la carretera de Izaskun (*titularidad municipal*) hasta la conexión en Santa Clara, y manifiesta la disposición total de su entidad a colaborar en la financiación de esta solución.

**NOVENO.-** Tras los análisis técnicos realizados, tanto el Ayuntamiento de Tolosa como Gipuzkoako Urak S.A, han considerado viable la solución técnica consistente en unir la red de saneamiento de la Clínica Asunción con el pozo de la red de saneamiento público ubicado en la intersección de las calles Santa Clara e Izaskungo Aldapa pasando por esta última calle.

**DÉCIMO.-** El Ayuntamiento de Tolosa ha mostrado su interés en la solución mencionada en el apartado anterior, considerando que el trazado propuesto puede también solucionar los problemas de acceso a la red de saneamiento de varios inmuebles ubicados en la calle Izaskungo Aldapa, estando las partes interesadas en que puedan realizarse dichas conexiones de forma conjunta.

**ÚNDECIMO.-** Como consecuencia de su adhesión al consorcio de Aguas de Gipu-

2007az geroztik, Tolosako udalerriko saneamenduko obra publiko GUZTIAK Gipuzkoako Ur Kontsortzioak egin ditu, Gipuzkoako Urak Sozietate Publikoaren bidez; beraz, Tolosako Udalak interesa du erakunde horrekin adosteko proiektuaren idazketa eta saneamenduko hartune berriko obren exekuzioa, hala, konponbidea emateko trazadura berrian sartzen diren higiezinei eta Asuncion klinikari.

zkoa, desde el año 2007, TODAS las obras públicas de saneamiento en el municipio de Tolosa han sido ejecutadas por el Consorcio de Aguas de Gipuzkoa, a través de la Sociedad pública Gipuzkoako Urak S.A, por lo que el Ayuntamiento de Tolosa estaría interesado en acordar con esa Entidad la redacción del Proyecto y la ejecución de las obras de nueva acometida de saneamiento, para dar solución tanto a los inmuebles afectados por el nuevo trazado , como a la Clínica Asunción.

## II. HITZARMEN HAU FORMALIZATZEA KOMENIGARRIA ETA EGOKIA DELAKO JUSTIFIKAZIOA

## II.- JUSTIFICACION DE LA CONVENIENCIA Y OPORTUNIDAD DE FORMALIZAR EL PRESENTE CONVENIO

**LEHENA.-** Kontsortzioak eratzen dira tokiko zerbitzu publikoak emateko lanean lankidetza ekonomiko, tekniko eta administratiboaren inguruan guztien intereseko helburuak lortzeko, apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, 104. artikuluan xedatutakoaren arabera.

**PRIMERO.-** Los Consorcios, en virtud de lo establecido en el artículo 104 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, se constituyen para fines de interés común que tengan por objeto la cooperación económica, técnica y administrativa para la prestación de servicios públicos locales.

**BIGARRENA.-** Hitzarmenak administrazio publikoek **<u>zuzenbide publikoko eta pribatuko erakundeekin</u>** hartzen dituzten akordioak, ondorio juridikoekin, formalizatzeko tresnak dira, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 47. artikuluak eta hurrengoek arautzen dituzte.

**SEGUNDO.-** Los convenios son los instrumentos para formalizar los acuerdos, con efectos jurídicos, que adopten las administraciones públicas con **<u>entidades de derecho público y privado</u>**, los cuales se rigen por los artículos 47 y siguientes de la Ley 40/2015, de Régimen Jurídico del Sector Público.

Ondorioz, Gipuzkoako Urak SAk eta Tolosako Udalak uste dute interes publikokoa dela irtenbide egokia ematea bai Asuncion klinikaren, bai egin nahi den hartunean zehar dauden eta sare

En consecuencia, tanto Gipuzkoako Urak S.A como el Ayuntamiento de Tolosa, consideran de interés público el dar una solución adecuada al saneamiento tanto a la clínica Asunción como a los inmuebles que se ubi-

publikorako konexiorik ez duten higiezinen saneamenduari.

can a lo largo de la acometida que se pretende ejecutar y que carecen de conexión a la red pública.

Hala, proiektua eta obra gauzatzen eta finantzatzen erakunde publikoak zein pribatuak daudenez inplikatuta, beharrezkotzat eta egokitzat jo da hitzarmen hau egitea, alde bakoitzaren betebeharrak eta konpromisoak zehazteko.

Por lo que estando implicados en la ejecución y financiación del proyecto y de la obra tanto entes públicos como privados, se considera necesario y oportuno formular el presente convenio para determinar las obligaciones y compromisos de cada una de las partes.

Azaldutakoarekin bat etorriz, akordio batera iritsi dira alderdiak, zeina lankidetza-hitzarmen honen xede den, eta honako estipulazio hauetan zehaztu da:

De conformidad con lo expuesto, las partes han llegado a un acuerdo, que es el objeto del presente Convenio de colaboración, y que se concreta en las siguientes:

**ESTIPULAZIOAK**

**ESTIPULACIONES**

**LEHENA.- XEDEA**

Hitzarmen honen xedea da Tolosako Udalak, Gipuzkoako Urak SAk eta Asuncion klinikak beren gain hartuko dituzten elkarrekiko konpromisoak ezartzea, proiektua idazteko eta obrak finantzatu eta gauzatzeko, bai Asuncion klinika, bai sare berrira konekta daitezkeen higiezinak sarearen saneamendu publikoarekin lotzeko.

**PRIMERA.- OBJETO**

Es objeto del presente convenio establecer los compromisos mutuos que asumen el Ayuntamiento de Tolosa, Gipuzkoako Urak S.A y la Clínica Asunción para la redacción del proyecto y la financiación y ejecución de las obras consistentes en la conexión al saneamiento público de la red, tanto de la clínica Asunción como de aquellos inmuebles -que por su ubicación- puedan conectarse a la nueva red.

Hain zuzen ere, hitzarmen honen bidez, jarduera hauetarako baldintzak eta konpromisoak arautzen dira:

1.- Obra-proiektua idaztea. Adjudikazioa, onarpena eta finantzaketa.
2.- Obrak gauzatzea. Lizitazioa, adjudikazioa, zuzendaritza eta finantzaketa.

En concreto, a través del presente convenio se regulan las condiciones y compromisos para las siguientes actuaciones:

1.- Redacción del proyecto de obras. Adjudicación, aprobación y financiación.
2.- Ejecución de las obras. Licitación, adjudicación, dirección y financiación.

**BIGARRENA.- ALDEEN BETEBEHARRAK OBRA-PROIEKTUARI DAGOKIONEZ**

1.- Gipuzkoako Urak SAk konpromisoa hartzen du obren proiektuaren idazketa kontratatzeko lizitazio-prozedura hasteko, hilabeteko epean, hitzarmen hau formalizatzen denetik zenbatzen hasita, eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen zehaztapenak errespetatu beharko ditu. Proiektua idazteko epea bi hilabetekoa izango da.

2.- Gipuzkoako Urak SAk, proiektua idazteko ezarritako baldintzetan, exijituko du idazten den proiektuan bereiztea alde bakoitzak, alegia, Gipuzkoako Urak SAk, Tolosako Udalak eta Asuncion klinikak, ordaindu beharreko obrak eta aurrekontu-partida. Alde bakoitzak ordaindu beharreko obren arabera, partaidetza ehuneko bat ezarriko da.

3.- Gipuzkoako Urak SAk proiektua onartu aurretik, Tolosako Udalari eta Asuncion klinikari bidali beharko die, hamabost eguneko epean ekarpenak egin ditzaten.

4.- Gipuzkoako Urak SAk 15 eguneko epean onartuko du proiektua, aipatutako iradokizunak igortzen diren egunetik edo, iradokizunik egiten ez bada, emandako epea amaitzen denetik zenbatzen hasita.

5.- Hitzarmen hau sinatzen duten alderdiek finantzatuko dute proiektuaren idazketa, obra-proiektuan ezarritako ehunekoen

**SEGUNDA.- OBLIGACIONES DE LAS PARTES RESPECTO AL PROYECTO DE OBRAS**

1.- Gipuzkoako Urak S.A se compromete a iniciar el procedimiento de licitación para contratar la redacción del proyecto de obras, en el plazo de un mes contado desde la formalización del presente convenio, debiendo respetar las determinaciones de la Ley 9/2017, de Contratos del Sector Público. El plazo de redacción del proyecto será de dos meses.

2.- Gipuzkoako Urak S.A , en las condiciones establecidas para la redacción del proyecto, exigirá que en el proyecto que se redacte se diferencien las obras y la partida presupuestaria que corresponda abonar a Gipuzkoako Urak S.A, al Ayuntamiento de Tolosa y a la clínica Asunción. En virtud de las obras que corresponda abonar a cada una de las partes, se establecerá un porcentaje de participación.

3.- Con carácter previo a que Gipuzkoako Urak S.A apruebe el proyecto, deberá de remitirlo tanto al Ayuntamiento de Tolosa como a la clínica Asunción para que, en el plazo de quince días, puedan realizar sus aportaciones.

4.- Gipuzkoako Urak S.A procederá a la aprobación del proyecto en el plazo de 15 días, contados a partir de la fecha en que se remitan las sugerencias mencionadas, o en el supuesto de que no éstas no se formulen a partir de la finalización del plazo otorgado.

5.- La redacción del Proyecto se financiará por las partes que suscriben el presente convenio, en virtud de los porcentajes resultan-

arabera. Ehuneko horiek alde bakoitzak finantzatu behar dituen obren aurrekontuarekiko proportzionalak izango dira.

6.- Gipuzkoako Urak SAk faktura igorriko die Tolosako Udalari eta Asuncion klinikari, eta hirurogei eguneko epea emango die ordainketa egiteko.

**HIRUGARRENA.- ALDEEN BETEBEHARRAK OBRAK GAUZATZEARI ETA ZUZENTZEARI DAGOKIENEZ**

1.- Gipuzkoako Urak, SAk konpromisoa hartzen du lehen estipulazioan aipatutako saneamendu-obren gauzatzea eta zuzendaritza kontratatzeko lizitazio-prozedura bi hilabeteko epean hasteko, obra-proiektua onartzen denetik zenbatzen hasita, eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen zehaztapenak errespetatu beharko ditu.

2.- Aldeek konpromisoa hartzen dute obren exekuzioa, zuzendaritza eta exekuzio egokiaren ondoriozko gainerako kostuak ordaintzeko, sor daitezkeen obra-desbideratzeak barne, alde bakoitzari dagokion eta onartutako proiektuan jasota dagoen aurrekontuaren arabera.

Proiektuan zehaztuko da alde bakoitzari ordaintzea dagokion kostua, bakoitzaren eskumenak kontuan hartuta: batetik, Gipuzkoako Urak, SAri dagokio Tolosako Izaskungo aldapako ur beltzen saneamendu-sare publikoko sarearen obrari dagokion atala finantzatzea; bestetik, Tolosako Udalari dagokio Izaskungo aldapako euri-uren saneamendu publikoko sarearen obrari dagokion atala eta, azkenik, Asuncion

tes establecidos en el proyecto de obras. Estos porcentajes serán proporcionales al presupuesto de las obras a financiar por cada una de las partes.

6.- Gipuzkoako Urak S.A emitirá factura tanto al ayuntamiento de Tolosa como a la Clínica Asunción, otorgándoles el plazo de sesenta días para que se realice el abono.

**TERCERA.- OBLIGACIONES DE LAS PARTES RESPECTO A LA EJECUCIÓN Y DIRECCIÓN DE LAS OBRAS**

1.- Gipuzkoako Urak, S.A. se compromete a iniciar el procedimiento de licitación para la contratación de la ejecución y dirección de las obras de saneamiento mencionado en la estipulación primera en el plazo de dos meses, contados desde la aprobación del proyecto de obra, debiendo respetar las especificaciones de la Ley 9/2017, de Contratos del Sector Público.

2.- Las partes se comprometen a abonar la ejecución de las obras, la dirección de las mismas y los demás costos que conlleve su adecuada ejecución, incluidos los desvíos de obra que puedan surgir, en virtud del presupuesto que corresponde a cada una de las partes y que está recogido en el proyecto aprobado.

Se determinará en el proyecto el coste que corresponde abonar a cada una de las partes en función de sus respectivas competencias: por un lado, corresponde a Gipuzkoako Urak, S.A. la financiación de la parte correspondiente a la obra de la red pública de saneamiento de aguas fecales de Izaskungo aldapa de Tolosa; por otro lado, al Ayuntamiento de Tolosa le corresponde la parte correspondiente a la obra de la red pública de

| | |
|---|---|
| Klinikari klinikaren saneamendu-sare pribatuaren obrari dagokion atala. | saneamiento de aguas pluviales de Izaskungo aldapa, y por último, a la Clínica Asunción la parte correspondiente a la obra de la red privada de saneamiento de la clínica |
| 3.- Asuncion klinikak bermatuko du egin beharreko obrak finantzatzeko proiektuaren arabera dagokion zenbatekoa. Ondorioz, abal bat jarriko du Gipuzkoako Urak SAren alde, lizitazio-prozedura hasi aurretik. Obra-kontratua adjudikatu ondoren, abalaren zenbatekoa kontratistari esleitutako zenbatekoaren arabera doitu ahal izango da. Abala lehenengo errekerimenduan betearazi ahal izango da, eta banketxeak berariaz uko egin beharko die zatiketa-, ordena- eta eskusio-onurei, edozein motatako salbuespenei uko eginez. | 3.- La Clínica Asunción avalará el importe que, de conformidad con el proyecto, le corresponda en la financiación de las obras a ejecutar. En consecuencia, depositará un aval a favor de Gipuzkoako Urak S.A, con carácter previo a que se inicie el procedimiento de licitación. Una vez adjudicado el contrato de obras, el importe del aval podrá reajustarse en atención al importe de adjudicación al contratista. El aval será ejecutable a primer requerimiento, debiendo la entidad bancaria renunciar expresamente a los beneficios de división, orden y excusión, con renuncia a cualquier clase de excepción. |
| 4.- Asuncion klinikak eta Tolosako Udalak, Gipuzkoako Urak SAk igorritako obra-ziurtagirien arabera, erakunde horri dagokion zenbatekoa ordainduko dute HIRUROGEI EGUNEKO EPEAN. | 4.- La Clínica Asunción y el Ayuntamiento de Tolosa, en virtud de las certificaciones de obra que remita Gipuzkoako Urak S.A , procederán a abonar la cantidad que le corresponda a dicha entidad en el plazo de SESENTA DÍAS. |
| 5.- Baldin eta Asuncion klinikak ez badu eskatutako zenbatekoa ezarritako epean ordaintzen, Gipuzkoako Urak SAk gordailatutako abala exekutatuko du, obrak bermatzeko. Abala osorik exekutatuko da lehenengo ez-ordaintzetik aurrera, eta zenbateko ekonomikoa atxiki | 5.- En el supuesto de que la clínica Asunción no abone la cantidad requerida en el plazo establecido, Gipuzkoako Urak S.A procederá a la ejecución del aval depositado para garantizar las obras. El aval se ejecutará en su totalidad desde el primer impago, reteniéndose la cuantía económica hasta que se finalicen y liquiden las obras. |
| 6.- Proiektuan ezarritako diru-zenbatekoa gutxi gorabeherakoa izango da, izan ere, behin betiko zenbatekoa obrak amaitu eta ziurtatu ondoren zehaztuko da. | 6.- La cantidad económica establecida en el proyecto será aproximada, ya que la cuantía definitiva se determinará una vez finalicen y certifiquen las obras. |
| 7.- Obra gauzatzeko gutxi gorabeherako epea hamar hilabetekoa izango da. Dena | 7.- El plazo aproximado de ejecución de la obra será de diez meses. No obstante, este |

den, epe hau obra-proiektuan zehaztuko da.

**LAUGARRENA.- ALDEEK BEREN GAIN HARTUTAKO BESTE KONPROMISO BATZUK**

Tolosako Udalak eta Asuncion klinikak proiektua idazteko eta obrak gauzatzeko behar den dokumentazio guztia emango diote Gipuzkoako Urak SAri, eta proiektuaren eraginpean dauden bere titulartasuneko lurzoruak jarriko dituzte haren eskura.

Gipuzkoako Urak SAk bere gain hartuko du obrak behar bezala gauzatzeko erantzukizuna.

Asuncion klinikako obrek eta Udalari dagokion euri-uren saneamendu-instalazioak, hitzarmen honen esparruan egingo direnak, ez dute eraginik izango Gipuzkoako Ur Partzuergoak, bere sozietate publikoaren bidez, Tolosako udalerrian egin behar dituen inbertsioetan.

**BOSGARRENA.- FINANTZAKETA**

Hitzarmen honen xede diren obrak gauzatzeko eta proiektua idazteko gutxi gorabeherako kostua 678.459,60 €-koa izango da (BEZa barne). Zenbateko horri eragingo diote, hala badagokio, esleipen-bajek, zuzendaritza fakultatiboaren kostuak eta laguntza tekniko osagarriek, prezioen berrikuspenek, aldaketek eta, oro har, kontratuen garapenean gerta daitezkeen gorabeherek.

Hitzarmen honetan aurreikusitako zenbatekoa gainditzen bada, igoera % 10etik

plazo se concretará en el proyecto de obra.

**CUARTA.- OTROS COMPROMISOS ASUMIDOS POR LAS PARTES**

El Ayuntamiento de Tolosa y la Clínica Asunción facilitarán a Gipuzkoako Urak S.A , toda la documentación precisa para la redacción del proyecto y la ejecución de las obras, poniendo a su disposición los suelos de su titularidad afectados por el proyecto.

Gipuzkoako Urak S.A asumirá la responsabilidad de la adecuada ejecución de las obras.

Las obras de la Clinica Asunción y las pluviales que corresponde al Ayuntamiento, que se ejecuten en el marco del presente convenio, no afectarán, en ningún caso, a las inversiones que el Consorcio de Aguas de Gipuzkoa, a través de su Sociedad Pública, debe realizar en el municipio de Tolosa.

**QUINTA.- FINANCIACIÓN**

El coste estimado de ejecución de las obras y redacción del proyecto objeto del presente convenio será de 678.459,60 € (IVA incluido). A este importe afectarán, en su caso, las bajas de adjudicación, el coste de la dirección facultativa y las asistencias técnicas complementarias, las revisiones de precios, las modificaciones y, en general, las incidencias que puedan sugir en el desarrollo de los contratos.

En caso de superarse la cuantía prevista en el presente convenio, si el incremento es in-

beherakoa bada, alderdi sinatzaile bakoitzak hartuko du bere gain, dagozkion ehunekoen arabera. % 10 gainditzen bada, Hitzarmenaren gehigarri bat sinatu beharko da, hitzarmenaren antzera izapidetuko dena.

Alde bakoitzak honako gutxi gorabeherako kostuak hartuko ditu beragain:

- Gipuzkoako Urak, S.A.-ak: 193.935,34 €
- Tolosako Udalak: 193.935,34 €
- Asuncion Klinikak: 290.588,92 €

**SEIGARRENA.- JARRAIPEN-BATZORDEA**

Alderdiek beren gain hartutako betebeharrak betetzen direla eta bertan jasotako jarduerak behar bezala gauzatzen direla zaintzeko, Jarraipen Batzorde bat sortuko da. Batzorde hori gutxienez 3 ordezkarik osatuko dute: hitzarmen hau sinatzen duen alderdi bakoitzeko ordezkari batek edo horiek izendatzen dituzten pertsonek, hain zuzen ere.

**ZAZPIGARRENA.- EZ-BETETZEEN ONDORIOAK**

Hitzarmen hau suntsiarazteko arrazoiak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 51.2 artikuluan ezarritakoez gain, honako hauek dira:

1.- Asuncion klinikak ezarritako epean ez ordaintzea obra-proiektua idazteagatik ordaindu behar duen zenbatekoa.

ferior al 10%, será asumido por cada una de las partes firmantes en sus correspondientes porcentajes. En caso de superarse el 10%, deberá suscribirse una adenda al convenio, que se tramitará de forma similar a la del convenio.

Cada una de las partes asumirá los siguientes costes aproximados:

- Gipuzkoako Urak, S.A.: 193.935,34 €
- Ayuntamiento de Tolosa: 193.935,34 €
- Clínica Asunción: 290.588,92 €

**SEXTA.- COMISIÓN DE SEGUIMIENTO**

Para velar por el cumplimiento de las obligaciones asumidas por las partes, así como por la correcta ejecución de las actuaciones recogidas en el mismo, se establecerá una Comisión de Seguimiento formada como mínimo por 3 representantes, un@ por cada una de las partes que firman el presente convenio o personas que estos designen .

**SÉPTIMA.- CONSECUENCIAS APLICABLES EN CASO DE INCUMPLIMIENTO**

Son causas de resolución del presente convenio, además de las establecidas en el artículo 51.2 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen jurídico del Sector Público, las siguientes:

1.- La falta de abono, en el plazo establecido, por parte de la Clínica Asunción de la cantidad que le corresponda pagar por la redacción del Proyecto de obras.
2.- La fata de depósito del aval, por parte de

| | |
|---|---|
| 2.- Asuncion klinikak abala ez gordailutzea obrak hasi aurretik. | la Clínica Asunción, con carácter previo a que se inicien las obras. |
| Hitzarmen hau suntsiarazten bada, Tolosako Udalak obrak subsidiarioki exekutatuko ditu, dagokion espedientea izapidetu ondoren, Asuncion klinikaren kontura, 39/2015 Legearen 102. artikulua aplikatuz. | En caso de resolución del presente convenio, el Ayuntamiento de Tolosa procederá a la ejecución subsidiaria de las obras, previa tramitación del correspondiente expediente, a costa de la Clínica Asunción en aplicación del artículo 102 de la Ley 39/2015. |
| **ZORTZIGARRENA.- HITZARMENAREN IZAERA ADMINISTRATIBOA** | **OCTAVA.- NATURALEZA ADMINISTRATIVA DEL CONVENIO** |
| Hitzarmen honek izaera administratiboa du eta, bertan xedatutakoaz gain, zuzenean edo analogiaz aplika daitezkeen Administrazio Zuzenbideko arauek arautuko dute. | El presente convenio tiene carácter administrativo y se regirá además de por lo dispuesto en el mismo, por las normas de Derecho Administrativo que directamente o por analogía pudieran resultar de aplicación. |
| Hitzarmen honetatik sor daitezkeen auziak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren pean jarriko dira, izaera juridiko-administratiboa dutelako. | Las cuestiones litigiosas que pudieran derivarse del presente convenio, dada su naturaleza jurídico-administrativa, serán sometidas al orden jurisdiccional contencioso-administrativo. |
| **BEDERATZIGARRENA.- ONDORIOAK, IRAUPENA ETA AZKENTZEA** | **NOVENA.- EFECTOS, DURACIÓN Y EXTINCIÓN** |
| Hitzarmenak, hasiera batean, bi urteko indarraldia izango du, baina aldeek hala nahi izanez gero, luzatu ahal izango da, baldin eta hitzartutako konpromisoak ez badira erabat bete. | El convenio tendrá una vigencia inicial de dos años, si bien podrá ser prorrogado por voluntad de las partes, si los compromisos pactados no hubieran sido completamente ejecutados. |
| Hitzarmena azkendu egingo da indarraldia amaitzen denean, helburuak erabat betetzen direnean, edo aldeetako batek bere gain hartutako konpromisoak bete ez dituelako hitzarmena suntsiarazten denean. | El convenio se extinguirá por el transcurso de su vigencia, por el total cumplimiento de sus objetivos, o por resolución debida al incumplimiento por alguna de las partes de los compromisos asumidos. |

TOLOSAKO UDALA

Gipuzkoako Ur Kontsortzioa

**HAMARGARRENA.-HITZARMENAREN BALIOZKOTASUNA**

Hitzarmen hau alderdien adostasunarekin burutuko da.

Eta ados daudela adierazteko, hitzarmen hau sinatu dute, adierazitako lekuan eta egunean.

**DÉCIMA.- VALIDEZ DEL CONVENIO**

El presente convenio se perfeccionará con la prestación del consentimiento de las partes.

Y en prueba de conformidad, firman el presente convenio, en el lugar y fecha señalados

34108801P OLATZ PEON (R: P2007600F)

Digitalki sinatuta norengandik: 34108801P OLATZ PEON (R: P2007600F) Data: 2021.12.02 14:57:32 +01'00'

**Sin.: Olatz Peon Ormazabal**

Tolosako Udaleko alkate-lehendakaria

ELOSEGUI VALLEJO, IÑIGO (AUTENTICACIÓN)

Firmado digitalmente por ELOSEGUI VALLEJO, IÑIGO (AUTENTICACIÓN)
Nombre de reconocimiento (DN): c=ES, serialNumber=15963803D, sn=ELOSEGUI, givenName=IÑIGO, cn=ELOSEGUI VALLEJO, IÑIGO (AUTENTICACIÓN)
Fecha: 2021.12.02 11:42:27 +01'00'

**Sin.- Iñigo Elosegi Vallejo**

Gipuzkoako Urak SAko zuzendari kudeatzailea

Firmado por 15878824S JESUS MARIA GOMEZ (R: A20220844) el día 02/12/2021 con un certificado emitido por Herritar eta Erakundeen CA - CA de Ciudadanos y Entidades (4)

**Sin.- Jesus Maria Gomez Montoya**

Asuncion klinikako administratzaile bakarra

MARIA BEGOÑA GARMENDIA VAZQUEZ

Firmado digitalmente por MARIA BEGOÑA GARMENDIA VAZQUEZ Fecha: 2021.12.03 11:22:17 +01'00'